

Turismoko Unibertsitate arteko Sarearen topaketa Donostian

Deustuko Unibertsitateko Donostiako campusak Intur Sarearen (Turismoko Unibertsitate arteko Sarearen) lan-saioak hartu zituen martxoaren 24an eta 25ean, Luis Valdés doktorea (Oviedoko Unibertsitatea) buru zela. Topaketa Gizarte eta Giza Zientzien Fakultateko Turismo Sailak antolatuta egon zen, Fakultate bereko Aisiazko Ikaskuntzen laguntzarekin. Jorratu zen gaietariko bat izan zen Turismoko Ikerketa Zientifikoaren Informazio Sistema Interneten bidez (SICTUR). Sistema horrek Turismoko lehiakortasun teknologikoa eta zientifikoa hobetzeko modua ematen du. Izan ere, 2009an lankidetzaz hitzarmen bat sinatu zen sistema horren inguruan Espainiako Turismo Institutuaren (Turespaña), Berrikuntzaren Kudeaketako eta Teknologia Turistikoen Estatuko Elkartearen (SEGITTUR) eta Intur Sarea une hartan osatzen zuten unibertsitateen artean.